



Arartekoaren 2019R-2427-16 Ebazpena, 2019ko azaroaren 8koa. Horren bitartez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala Lanbidek kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzeko emandako ebazpena eta, horren ondorioz, ustez bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzeko eskakizuna.

Aurrekariak

1. Interesdunak guraso bakarreko bizikidetzaren unitatea osatzen du 8 urteko semearekin, eta kexa bat aurkeztu zuen Arartekoan. Kexa horren xedea da Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzaren prestazio osagarria iraungi zizkiola, eta 18.676 euro itzuli behar zituela ustez bidegabe jaso zituen prestazio gisa.

Zehazki, Lanbidek iritzi dio 2014an doako laguntza juridikoaren onura eman ziotenetik, prestazioaren titularrak ez zuela berriz eskatu gurasoen eta seme-alaben arteko neurriak, zaintza eta mantenu-pentsioa ezartzeko epaia betearaztea (Melillako Lehen Auzialdiko 3 zenbakiko Epaitegiak 2013ko otsailaren 27an emandakoa); horren bidez, bikotekide ohia mantenu-pentsioa ordaintzera behartzen zen, hau da, 200 euro hilean.

Hala, 2016ko urriaren 4an, iraungitze prozedura abiaraziko zela jakinarazita, Lanbidek interesdunari eskatu zion aurkez zezala *"sentencia por el impago de pensión de alimentos"* edo *"escrito de su abogado de cómo se encuentra el proceso"*; horretarako, hamar egun baliodun eman zitzaizkion alegazioak aurkezteko eta aipatutako dokumentazioaren gabezia zuzentzeko.

Titularrak bulegoa Melillan zuen ofiziozko bere abokatuari idazki bat eskatu zion, eta 2016ko azaroaren 21ean igorri zion; bertan, prozesuaren egoeraren berri ematen zuen, Lanbiden entregatu zuena hil horren 23an.

Abokatuak bidalitako idazkiak zioen neurriak aldatzeko eta epaia betearazteko espedientearen izapidetze bidean zegoela, *"habiéndose dilatado el procedimiento por encontrarse el marido de la referida en ignorado paradero, parece ser que ha abandonado el país y se ha marchado a Marruecos"*.

Hala ere, Lanbidek aurkeztutako alegazioak ezetsi zituen, eta bi prestazioak iraungitzeko ebazpena eman zuen 2016ko azaroaren 23an bertan, honetan oinarrituz: eskubide ekonomiko oro baliarazteko betebeharra, ustez, bete ez izana.

Urte bereko abenduaren 5ean interesdunak aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen iraungitze ebazpenaren aurka, eta 2017ko urtarrilaren 10ean kexa jarri zuen Melillako Abokatuen Elkargoan; horren bidez, ofiziozko beste abokatu bat premiaz esleitzeko eskatu zuen, uste baitu jardun zuen abokatuak bere eginbeharrak ez zituela behar bezala eta arduraz gauzatu.





Bere eskaera Melillako Abokatuen Elkargoak 2017ko martxoaren 1ean baietsi zuen; hala, Orientazio Juridikoko Zerbitzura igortzea erabaki zuten ofiziozko beste abokatu bat izendatzeko.

Aldi berean, ustezko ez betetzearen datatik titularrak jasotako guztia itzultzeko prozedura abiarazi zuen Lanbidek, hau da, 18.676 euro.

2. Arartekoak, kexa izapidetzeko onartu ondoren, kontu horiei buruzko informazioa eskatu zion Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari, eta alde aurretik zenbait gogoeta helarazi zituen; horiek ez errepikatzearen, geroago azalduko ditugu.

Eskaera horri erantzunez, Lanbideko zuzendari nagusiak erakunde honi erantzun dio honako hau berretsiz: erakunde honen aburuz, hartzaileak betebeharrak hori ez zuela bete, egiaztatu baitzen 2014. urtetik (pentsio hori ordaindu ez izana erreklamatzeko doako laguntza juridikoaren onura eman zitzaion) bere eskubidea baliatzeko ez zuela egintza dokumentaturik egin.

Gogoetak

1. Espediente honetan, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzeko ebazpena, 2016ko azaroaren 23koa, zuzenbidearekin bat datorren aztertzen da, kontuan hartuta kexagileak ez duela baliatu mantenu-pentsioa kobratzeko eskubidea; horrenbestez, honako artikulua hauetan ezarritako betebeharrak ez zuten bete: Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeari buruzko 18/2008 Legearen 19.1.b) artikulua eta Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko 147/2010 Dekretuaren 12.1.b) artikulua.

Gainera, Lanbidek egindako eskakizuna betetzea zalantzan jartzen da, alegia, 2015eko otsailaren eta 2017ko otsailaren arteko epealdiari dagokion zenbatekoa, 18.676 euro, itzultzea.

147/2010 Dekretu horren 31.1.a) artikulua zehazten du nola egiten den eskubide nahiz prestazio ekonomikoen egiaztapena:

“31. artikulua.- Eduki ekonomikoko eskubideak eta prestazioak egiaztatzea.

1.- Udalak¹ egiaztatuko du eskatzaileak eta haren bizikidetzak-unitateko kideek jaso ditzaketen eduki ekonomikoko gizarte-eskubideak eta prestazioak osorik baliatu dituztela.

Horretarako, ondorengo kasuetan ulertuko da eskubideak oso-osorik baliatu direla:

a) (...) Ebazpen judizialak jadanik onetsi dituen baina jaso ez diren eskubideen edo prestazioen kasuan, horiek baliatu direla ulertuko da horiek

¹ Egungo organo kudeatzailea Lanbide da, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legea aldatzen duen azaroaren 24ko 4/2011 Legearen ondoren.



eman behar dituen pertsonari dagokion ez-betetzeagatiko dagokion ebazpen judizialaren betearazpen-intzidenteari hasiera eman zaiola egiaztatzen denean."

Horri dagokionez, Lanbideren irizpideen dokumentuaren 9.3.1. apartatuak (2017ko maiatzean onartua) honako hau jasotzen du:

"A.2.4) Nolanahi ere, izatezko banatzea gertatu zenetik edo mantenu-pentsioa ordaintzeari utzi zitzaionetik zenbatzen hasita, 2 urteko (24 hilabete) epea emango da dagokion ebazpen judiziala emateko eta, hala badagokio, zordundutako zenbateko guztiak ordaintzeko.

Ezarritako epeak betetzen ez badira, ezinbesteko kausak frogatu beharko dira, edota ebazpena jasotzaileari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik eman ez dela frogatzen duen ziurtagiria aurkeztu."

Ikuspegi horretatik, azpimarratu behar da interesdunak, guraso eta seme-alaben arteko neurrien epaian agindutako mantenu-pentsioa ez ordaindu bezain laster, jokabide aktiboa izan zuela, doako laguntza juridikoaren onura eskatu eta lortu zuela, eta ofiziozko abokatu bat izendatzeko ere eskatu zuela; azken horri agindu zion epaia betearazteko demanda aurkez zezala.

Bestalde, aipatu behar da Prozedura Zibilaren Legearen 518. artikulua araberan, epai judizialean, arbitraje-ebazpenean edo bitartekaritza-erabakian oinarritutako betearazpen-akzioa iraungitzea arautzen duena: *"La acción ejecutiva fundada en sentencia, en resolución del tribunal o del secretario judicial que apruebe una transacción judicial o un acuerdo alcanzado en el proceso, en resolución arbitral o en acuerdo de mediación caducará si no se interpone la correspondiente demanda ejecutiva dentro de los cinco años siguientes a la firmeza de la sentencia o resolución"*.

Hizpide dugun kasuan, interesdunak doako laguntza juridikoaren onura eskuratu zuen 2014. urtean, neurriei buruzko epaia eman eta urtebete geroago (2013/02/27), epai horretan bikotekide ohiak pentsioa ordaindu ez zuela ikusirik; hala, Orientazio Juridikoko Zerbitzuak ofiziozko abokatu izendatu ondoren, abokatu horri agindu zion epaia betearazteko demanda aurkez zezala.

Betearazteko demanda, hortaz, ez zen iraungi, epaia irmo bihurtu zenetik bost urte igaro ez zirelako; horrenbestez, interesdunak bere eskubide ekonomikoa bere horretan mantentzen zuen.

Ilido horretan, horrek ez du esan nahi kexagileak 18/2008 Legearen 19. artikulua horretan jasotako betebeharra (eskubide ekonomikoa baliaraztea) bete ez zuenik eta, beraz, prestazioen titular izateko betekizun hori galdu zuenik ere.

- 2.- Melillako Abokatuen Elkargoak aldeko txostena egin izanak ere garrantzia du, eta modu laburrean, ofiziozko beste abokatu bat izendatzeko eskaera onartu izanak; izan ere, horrek esan nahi du isilbidez aitortu behar dela neurriak betearazteko prozeduran ordura arte erregistratutako atzerapena ezin zitzaiola kexagileari egotzi.





Hori horrela dela egiaztatzen da, interesdunari ofiziozko beste abokatu bat esleitu eta epaia betearazteko demanda aurkeztu izana Lanbiden egiaztatu ondoren, erakunde horrek kexagileari diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea aitortu zionean berriz, ondorioak 2017ko abenduaren 19tik aurrera izanik.

Hortaz, Arartekoaren aburuz, interesdunak eskubide ekonomikoa baliarazi zuen, nahiz eta, bere asmoekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik, eskubide hori benetan aitortzeko eskakizuna denboran atzeratu.

- 3-. Iraungitze adierazpen horrekin batera, Lanbidek interesdunari 18.676 euro itzultzeko eskatu dio; gehiegizko neurria da, beretzako oso kaltegarria, zernolako jokabidea izan duen kontuan hartzen bada. Azpimarratu behar da kexagileak diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren titular izateko betekizunak betetzen zituela; diru-sarrerak bermatzeko errenta gisa ordaindutako zenbatekoak hilerro jasotzen zituen benetako diru-sarrerak kontuan hartzen zituela, eta eskubide ekonomikoa baliarazteko aukerari eusten ziola, alaba gazteenaren mantenu-pentsioa ordaintzea.

Hala, Arartekoaren ustez, iraugitze horren ondorioz Lanbidek prestazioak itzultzeko prozedura bat eskatu izanak ez du zertan arau babesik izan behar. [Diagnostiko-txostena](#)², Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituena, 2017 izeneko agirian hainbat alditan adierazi eta jaso den moduan, diru sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren araudian jasotako xedapenek (maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretua eta urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretua), onuradunek betebeharrak ez betetzeari eta betekizunak galtzeari lotutakoak, erakunde honen ustez, gabezi handiak dituzte, batez ere proportzionaltasuna printzipioa errespetatzen ez dutelako.

Arartekoak azpimarratu du, besteak beste, zehapen-prozedura garatzea garrantzitsua dela, eta uste du prestazioen titularra izateko baldintzak betetzen direnean baina betebeharrak bat bete ez denean, egokiagoa litzatekeela zehapen-prozedura batera jotzea, baldin eta zehapen egoki eta proportzionatu bat aurreikusten badu egin den ez-betetzeari (arau-hausteari) arabera. Zehapen-prozedurak eskatzen du (Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 108. artikulua), arau-haustea eragin duen egitatearen larritasunaren eta aplikatutako zehapenaren artean behar bezalako egokitzapena egin behar izatea, eta zehapena mailakatzeko honako inguruabar hauek hartu behar direla kontuan: nahita egin den edo errepikapena egotea, eragindako kalteen izaera edo arau-haustea berriz egitea.

Ikuspegi horretatik, prestazioa iraugitzea eta ustezko jokabide urratzailea egin zenetik jasotako prestazioak erreklamatzeko, kasu honetan mantenu-pentsioa ordaindu ez zenetik, gehiegizko neurria izango zen.

² http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_4028_3.pdf



Prestazioen zehapen-araubidea ez da garatu, eta une hauetan araudi osoa aldatzearen zain daude; beraz, urte hauetan guztietan Lanbidera helarazitako gogoetak indarrean dira.

Horrez gain, ez dago argi zein kasutan eskatzen den prestazioak itzultzeko. Maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 56. artikulua itzultzeko betebeharra ezartzen du soilik diru-sarrerak bermatzeko errenta bidegabe jaso dela egiaztatzen bada.

“Aldatzeko, eteteko edo azkentzeko prozedura baten ondorioz edo beste edozein zirkunstantziagatik diru-sarrerak bermatzeko errenta bidegabe jaso dela egiaztatzen bada, titularrak jaso behar ez zirela jasotako prestazioak edo prestazioarengatik jaso behar ez zela jasotako zenbatekoa itzuli behar dituela ezarriko du foru-aldundi³ eskudunak.”

Lanbideren ustez, prestazioak iraungitzea erabaki denetan, diru-sarrerak bermatzeko errenta edo, hala badagokio, etxebizitzarako prestazio osagarria bidegabe jasotzea sortzen da automatikoki (2/2010 Dekretuaren 34. artikulua). Interpretazio hori, erakunde honen iritziz, ez da hain argia eta bidegabekeria materialeko egoera kaltegarriak eragiten dizkie pertsona horiei, eta ez dezagun ahaztu gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan daudela, eta hain zor handiari aurre egitea oztopo gehigarria dela gizarteratzeko ibilbidean.

Horregatik, erakunde honek uste du jasotako prestazioak itzultzeko betebeharra ezartzen duen araudiak argi eta garbi finkatu beharko lukeela bidegabe jasotako zenbatekoen itzulketa eskatzeko aukera ematen duten kasuak.

4. Laburbilduz, esan behar da, kasu honetan, Arartekoa ez datorrela bat Lanbidek egiten duen interpretazioarekin, hau da, epaia betearazteko demanda formalizatzeko atzerapenak, interesdunaren asmoen eremutik kanpo zeuden arrazoiengatik, ez duela betetzen abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 19.1.b) artikuluan jasotako betebeharra (ezta etxebizitzarako prestazio osagarriarena ere).

Horrek doako laguntza juridikoa eskatzea zekarren, interesdunak zegokion epean eta moduan egin zuena, eta onartu egin zitzaion behar besteko arduraz jardun ez zuen abokatu bat izendatuz; horren ondorioz, Melillako Abokatuen Elkargoak ordeztu egin zuen.

Arartekoaren aburuz, kexagileak eskubide ekonomikoa baliarazi zuen, eta hari eutsi zion bere esku zeuden jarduerak eginez; beraz, 18/2008 Legearen 28.1.h) artikuluan ezarritako iraungitzeko arrazoirik ez zen izango.

Aurrekoaren ondorioz, diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarri gisa jasotako prestazioak itzultzeko eskakizunak, mantenu-pentsioa ordaindu ez zenetik, ez zuen lege babesik izango, ez zuelako honako artikulua honek eskatutako nahikoa oinarri izango: maiatzaren 25eko

³ Egungo organo kudeatzailea Lanbide da, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legea aldatzen duen azaroaren 24ko 4/2011 Legearen ondoren.



147/2010 Dekretuaren (Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa) 56. artikulua.

Hori guztia dela eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako gomendio hau egiten da:

GOMENDIOA

Arartekoak gomendatzen du kexagilearen eskubidea iraungitzeko ebazpena berriz azter dadila, ez duelako eskubide ekonomiko bat baliarazteko betebeharririk urratu; horrez gain, ondorioz gabe utz dadila 18.676 euro itzultzeko eskakizuna, ez baitago jasotako prestazioak bidegabetzat jotzeko nahikoa oinarririk.

